

Euskalingua 21

Aurkezpena

Irakurle hori,

*Euskalingua21*en sei artikulua dira irakurgai. Hasierako artikuluan, Iñaki Gamindek Bizkaiko gazteen ahozkeraren aldaketa hartu dau aztergaitzat. Bigarrenean, Gotzon Aurrekoetxea, Iñaki Gaminde, Aintzane Etxebarria eta Aitor Iglesiasek, talde-lanean, euskararen azentua zehazteko saiakeraren barri emoten deuskue. Hirugarrenean, Ariane Ensunzak Busturialdeako bokalak aztertu ditu. Laugarrenean, Ibon Coteronek aditz-egitura baten azalpen alternatiboa idatzi dau. Bosgarrenean, Udane Goikoetxeak Gotzon Garate euskaltzalearen figura eta lana aztertzeari ekin deutso. Azkenengoan, Aholab ingeniari taldeko David Tavarez, Eva Navas, Daniel Erro, Ibon Saratxaga, Inma Hernaez-ek audioetako hitz jarioaren diarizazio-sistema hobetzeko egindakoaz dihardue.

I. Gamindek *Fonemen eta alofonoen maiztasunak Bizkaiko gazteen bat-bateko testuetan* izenburudun artikuluan Bizkaiko gazteen ahoskeraren joerak deskribatzen ditu. Informatzaileak aukeratzeko hiru aldagaien arabera sailkatu ditu: Bizkaiko zona, ama-hizkuntza eta generoa. Sailkatu ondoren, gazteen ahoskerako fonemak eta alofonoak aztertu ditu eta aldatzen ari dan ahoskeraren norabidea deskribatu. Ahoskera-aldaketaren abiada azkarra, zonaldeen konpaktotasuna lausotzea eta, batez be, hiztunaren ama-hizkuntzaren eragina eta generoarena ondorioztatzen ditu ikerketa honek

G. Aurrekoetxeak, I. Gaminde, A. Etxebarria eta A. Iglesiasegaz batera *Ahozko hiztegia* izenburudun artikulua dakarre. Euskararen azentua zehazteko zailtasunak gainditzeko helburuz, euskara estandarerrako azentu eta intonaziorako eredu batzuk sortu eta proposatzeko zereginari ekin deutsee; morfologia, sintaxia, lexiko, toponimia eta beste arlo batzuk zuzen erabiltzeko bideak proposatuta dagozen moduan, ahoskerak hondino dauan zehazbakotasuna modu teorikoan gainditzeko ahalegina egin dabe. Adituen artean danak ez datozela bat azentu bakarraren beharrez aldarrikatzean jakinda egin dabe azentuaren forma batuaren bilako aurrerapausu hau. Hizkuntzaren ahozko transmisioan garantzitsu diren irakasle, esatari, aktore eta handik harakoentzat Ahozko hiztegia baliabide egokia izango dan konfidantza adierazten dabe.

A. Ensunzak *Busturialdea Fonetika Histórica Vasca-n* izeneko artikulua idatzi dau, Euskal Filologiako masterrean egindako lan baten oinarrituta. Artikulu honetan bokalak aztertzen ditu bai Mitxelaren lana, bai XVIII. mendeko Gandara gernikarrarena eta bai garaikidea zen De la Quadrarena kontuan hartuta, bokalen izaera, diptongoena, monoptongazioa eta hiatoen deskripzioa osatzen saiatuz.

I. Coteronek *Apuntes de filosofía del euskara, IV: verdades y medias verdades de la explicación al uso de la construcción participio+egin+verbo auxiliar del euskara occidental* artikulua eskaintzen dau. Lambrecht-en 1994ko fokoaren teorian oinarrituta, *participio+egin+aditz* laguntzailea egituraren beste azalpen bat eskaintzen dau eta egitura honen ohiko azalpena, azalpen posibletariko bat baino ez dela erakusten saiatzen da. Gaztelaniaz idatzi dauan artikulua honek *Euskalingua* 7n, 10en, 11n eta 12n argitaratutako *Apuntes de Filosofía del Euskera* sailari beste ale bat gehitzen deutso.

U. Goikoetxeak *Gotzon Garate. Tradiziotik modernitate* artikulua dakar *Euskalingua* 21era, hain zuzen, Garate zenaren figura lantzeko hasi dauan lanaren lehenengoa. Tradizioan oinarrituta bizi dan intelektual eta kultura-gizon modernoaren izaera adierazten dau. Idazlea (saiakera, eleberria, ipuina, kronika) hizkuntzalaria (hiztegiak, atsotitzak), kultura-eragilea (Euskal Filologia ikasketak Deustuko Unibertsitatean ezarteko bidea egin), euskara batuaren aldeko lana, eta, era berean, euskalkien defendatzaile sutua, besteak beste, Garate euskaltzale eta abertzalea ikusi dagikegu Goikoetxearen artikulua honetan.

Aholab taldeko D. Tavarez, E. Navas, D. Erro, I. Saratxaga, I. Hernaez-ek *Emaitzen post-prozesatze teknikak hizlariaren diarizazio-sistema baterako* artikuluan hizlariaren jarioaren diarizazio-sistema hobetzeko egindako lana aurkezten dabe. Erabilitako post-prozesatze teknikak hizlariaren diarizazio-sistema hobetzeko onargarriak direla baieztatu daiteke

Euskalingua 21eko artikuluoak irakurtea aberasgarri izango jatzulakoan, agurtzen zaitut.

Aulesti, 2012ko azaroak 14

Maribi Unamuno

Editorea

victoria.unamuno@ehu.es